# PRAKTIKEN EGUTEGIA, PRACTICUM ETA PRAKTIGES APLIKAZIOETAN

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren berrogeita hamabigarren xedapen gehigarria indarrean jartzeak eta, ondorioz, praktikaldiagatik kotizatzeko betebeharrak, aldaketak eragin ditu praktiken kudeaketan. Aldatu egin dira praktikak kudeatzeko aplikazioak, baina oraindik egutegia sartzea falta zen, ikaslea praktiketara doan egunen segimendua egin eta informazio hori Gizarte Segurantzara igorri ahal izateko.

Honako hau dio Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren berrogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren 7. puntuak:

*"7. La cotización en el supuesto de prácticas formativas no remuneradas se ajustará a las siguientes previsiones:*

*a) Consistirá en una cuota empresarial por cada día de prácticas formativas por contingencias comunes y por contingencias profesionales, que tendrá en cuenta la exclusión de la cobertura de la incapacidad temporal derivada de contingencias comunes, que serán establecidas para cada ejercicio en la correspondiente Ley de Presupuestos Generales del Estado, sin que pueda superarse la cuota máxima por contingencias comunes y profesionales que se determine, igualmente, en dicha ley."*

**Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) praktikengatik kotizatu** behar duen kasuetan, egutegi bat sartu behar da, ikaslea praktiketara zehazki zein egunetan joan den jakiteko. Praktikek bi egutegi izango dituzte: alde batetik, oinarri edo aurreikusitako egutegi bat, praktika grabatzean grabatuko dena; bestetik, benetako egutegia, ikaslea praktiketara zehazki zein egunetan joan den jasoko duena. Aldaketarik egon ez bada, benetako egutegia aurreikusitakoaren berdina izango da, baina praktika egunen batean huts egin bada, **hilabetearen 5a baino lehen** erregistratu beharko da sisteman. Honako hauek dira benetako egutegian jaso beharreko ez-bertaratzeen arrazoiak:

- Baja medikoa (ordaindutako praktiketan soilik)
- Istripua bajarik gabe
- Istripua bajarekin
- Aldi baterako hainbat ezintasun (jaiotza eta adingabeen zaintza, haurdunaldi garaiko arriskua edo edoskitze naturala)
- Justifikatu gabeko ez-bertaratzea

Ondorengo orrialdeetan azaltzen da nola grabatu behar den egutegia praktikak kudeatzeko aplikazioetan (Practicum eta Praktiges). Egutegia grabatzea nahitaezkoa da EHUk Gizarte Segurantza bere gain hartu behar duen kasuetan (Antolakuntza Unitateak barne hartzen ditu).

Egutegia **2026-2027 ikasturtetik** aurrera jarriko da martxan. Ordura arte, egutegia aplikazioetan grabatu ahal izango da, baina sartutako informazioak ez du eraginik izango Gizarte Segurantzan. Egutegia "Irakasgai-planen arabera" definitu behar den kasuetan, garrantzitsua da egutegia grabatzea, informazioa ondorengo grabaketa edo plazen kargan egoki txertatu dadin.

# PRACTICUM APLIKAZIOA

Egutegia parametroetatik edo eskaintzatik sar daiteke:

- **Parametroetan** definitutako egutegi botoia: Plan/Irakasgai bakoitzean sartutako hasiera eta amaiera datuen arteko aldia jasotzen du, eta behin zehaztuta, eskaintza guztien **oinarri egutegia** izango da, horietako bakoitzean jaso, kopiatu eta aldatu ahal izango dena.

- **Eskaintzan** definitutako egutegi botoia: egutegia eskaintza bakoitzeko sortzen da. Eskaintzan sartutako daten aldia jasotzen du, eta ikaslearen **oinarri egutegia** finkatuko da "Egutegia" botoia erabilita. Egutegi hau kopiatu ahal izango da eskaintzarekin batera.

Egutegia sartzeko aukera hautatzen da parametroen "Irakasgai-planeko datuak" atalean.

Horietako bakoitzean ›› geziak erabilita,

1. irudia




| | Plana / Irakasgaia | Tutoreal adjud. arduradi | Autopra | Enpresai sartzea | (Auto)m modulua konekta nahi duzu? | Hasi. data | Amai.da | Ordu kopurua | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ›› | Haur Hezkuntzako Gradua (Euskeraz) ... | Ikaste... | Ez | Ez | Bai | 2024/09/24 | 2024/1... | 150 | Egutegia | Baja ema |
| ›› | Haur Hezkuntzako Gradua (Euskeraz) ... | Ikaste... | Ez | Ez | Bai | 2024/11/05 | 2024/1... | 210 | Egutegia | Baja ema |
| ›› | Haur Hezkuntzako Gradua (Euskeraz) ... | Ikaste... | Ez | Ez | Bai | 2025/02/04 | 2025/0... | 300 | Egutegia | Baja ema |
| ›› | Lehen Hezkuntzako Gradua (Euskera) ... | Ikaste... | Ez | Ez | Bai | 2024/09/24 | 2024/1... | 150 | Egutegia | Baja ema |
| ›› | Lehen Hezkuntzako Gradua (Euskera) ... | Ikaste... | Ez | Ez | Bai | 2024/11/05 | 2024/1... | 210 | Egutegia | Baja ema |
| ›› | Lehen Hezkuntzako Gradua (Euskera) ... | Ikaste... | Ez | Ez | Bai | 2025/02/04 | 2025/0... | 300 | Egutegia | Baja ema |
| ›› | Lehen Hezkuntzako Gradua (Hirueledu... | Ikaste... | Ez | Ez | Bai | 2024/09/24 | 2024/1... | 150 | Egutegia | Baja ema |
| ›› | Lehen Hezkuntzako Gradua (Hirueledu... | Ikaste... | Ez | Ez | Bai | 2024/11/05 | 2024/1... | 210 | Egutegia | Baja ema |
| ›› | Lehen Hezkuntzako Gradua (Hirueledu... | Ikaste... | Ez | Ez | Bai | 2025/02/04 | 2025/0... | 300 | Egutegia | Baja ema |

eta "Irakasgai-planen araberako egutegia" aukeran dagokiona sakatuta ("Bai", lehenetsita). (2. irudia)

2. irudia




Aukera hau hautatuta, oinarri egutegia finka dezakegu, “Irakasgai-planeko datuak” erlaitzeko “Egutegia” botoia erabilita, lotutako praktika guztietarako. Horien hasiera eta amaiera datak izango dira irakasgai-plan honetan zehaztutakoak (3. irudia).

3.irudia




Horretarako, sakatu egin beharko da Plan/Irakasgai bakoitzari dagokion egutegi botoia; definitu eta gorde.

4. irudia




| | |
|---|---|
| ☐ | egutegiaren barruan hautatu beharreko egun posiblea |
| ☑ | hautatutako egutegiko eguna |

Aldiz, “Ez” aukeratzen badugu 2. irudiko “Irakasgai-planen araberako egutegia” aukeran, desgaitu egingo da “Egutegia” botoia “Irakasgai-planeko datuak” erlaitzean, eta egutegia finkatuko dugu eskaintzatik (“Egutegia” izeneko botoi bat edukiko du). Botoi hori, “Berria” botoiarekin sortutako praktika bat **gordetzean** ere sortuko da.

5. irudia




Praktika eskaintzaren esleipen bakoitzean (ikaslearen fitxaren barruan), bi egutegi egongo dira, eta bietan kopiatu ahal izango da oinarri egutegia, baldin eta parametrizazioan finkatu bada, “Irakasgai-planeko datuak” erlaitzean egutegi botoia “aktibatuta” edukita:

- **Aurreikusitako egutegia**: Praktikarako aurreikusitako egutegiari buruzko informazioa jasotzen du.
- **Ikaslearen benetako egutegia**: Ikaslea praktiketara zehazki zer egunetan doan.

Adjudikazioan hasiera eta amaiera datak aldatzean, aldatu egingo dira aurreikusitako egutegiaren eta benetako egutegiaren aldiak ere.

6. irudia




Ez-bertaratzeen kudeaketa soil-soilik erabili ahal izango da egutegietan adjudikazio mailan (benetako egutegia), xehetasunetan sartuz, ›› geziak erabilita.

7. irudia




| | |
|---|---|
| ☐ | egutegiaren barruan hautatu beharreko egun posiblea |
| ☑ | hautatutako egutegiko eguna |
| (gorria) | ez-bertaratze gisa hautatu eta markatutako egutegi eguna |

Dagokion lerroan sartuta eta ez-bertaratzearen arrazoia hautatuta.

8. irudia




Gorabeherak hilaren 5a baino lehen sartu beharko dira. Egun horretatik aurrera, egutegia blokeatu egingo da eta ezin izango da aldaketarik egin.

Oinarri egutegiari, aurreikusitakoari, benetakoari, kotizatu beharreko egunei eta huts eginikoei buruzko informazioa ikus daiteke, bai eta unibertsitateak Gizarte Segurantza ordaindu/kotizatzen duen bai/ez eremu bat ere, "Praktikei buruzko datuak" zerrendan; azken hori lortzen da "Zerrendak – Kalkulu orriak" menu aukeraren "Sortu Excel Osoa" botoia sakatuta.

9. irudia



Praktiken kudeatzaileek egutegia zehaztu, aldatu… dezakete, ikastegietan, eta beste pertsona batzuek kontsulta dezakete (instruktoreek, tutoreek eta ikasleek).

10. irudia. Irakaslearen profilean:




11. irudia. Ikaslearen profilean:




12. irudia. Instruktorearen profilean:



# PRAKTIGES APLIKAZIOA

Curriculumetik kanpoko praktiketan, egutegia eskaintza mailan soilik parametrizatu daiteke.

Praktiken eskaintzan aurki daitezke, bai aurreikusitako egutegia bai ikaslearen benetako egutegia.

Praktikaren egunetan eginiko aldaketak egutegietarako balio behar du, eta bi egutegiak egokitu beharra ekarriko du (aurreikusitakoa eta benetakoa).

- **Aurreikusitako egutegia**: eskaintzan sortzen da, praktikaren hasiera eta amaiera datak sartzean. Eskuz sartuko du erabiltzaileak eta nahitaezkoa izango da praktika balidatzeko.

13. irudia




14. irudia



Egutegian, praktikaren egunak hautatu ahal izango dira.

| | |
|---|---|
| ☐ | egutegiaren barruan hautatu beharreko egun posiblea |
| ☑ | hautatutako egutegiko eguna |

- **Ikaslearen benetako egutegia**: automatikoki sortuko da, ikasleari adjudikatzean. Benetako egutegia izango da adjudikazio unean aurreikusitakoaren kopia. Egutegi bakoitza banan-banan aldatu ahal izango da.

15. irudia




| | |
|---|---|
| ☐ | egutegiaren barruan hautatu beharreko egun posiblea |
| ☑ | hautatutako egutegiko eguna |
| ▬ | ez-bertaratze gisa hautatu eta markatutako egutegi eguna |

Praktikak huts egin diren egunak markatzeko, dagokion lerroan sartu beharko da, ›› geziak erabilita, eta ez-bertaratzeak zehaztu, zabalgarriaren aukerak erabilita.

16. irudia




Gorabeherak hilaren 5a baino lehen sartu beharko dira. Egun horretatik aurrera, egutegia blokeatu egingo da eta ezin izango da aldaketarik egin.

Aurreikusitako egutegiari, benetakoari, kotizatu beharreko egunei eta huts eginikoei buruzko informazioa ikus daiteke, bai eta unibertsitateak Gizarte Segurantza ordaindu/kotizatzen duen bai/ez eremu bat ere, "Praktikei buruzko datuak" zerrendan; azken hori lortzen da "Zerrendak – Kalkulu orriak" menu aukeraren "Sortu Excel Osoa" botoia sakatuta.

17. irudia



| | Y | Z | AA | AE | AF | AG | AH | AI | AJ | AK | AL | AM |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Atzer. her | Unibertsit | Hizkuntz | Lag. polts | Lag. polts | Unib. polt | Unib. G.S. | Aurreikus | Benetako | Kotizatu b | Absentzia | Curr. kop. |
| 2 | | | Gaztelania | 860 | 3360 | Ez | Ez | Ez | Ez | 0 | 0 | |
| 3 | | | Gaztelania | | 300 | Ez | Ez | Ez | Ez | 0 | 0 | |
| 4 | | | Zehaztugabe | 500 | 4250 | Ez | Ez | Ez | Ez | 0 | 0 | |
| 5 | | | Zehaztugabea | | 2500 | Ez | Ez | Ez | Ez | 0 | 0 | |
| 6 | | | Elebiduna | 500 | 1716.66 | Ez | Ez | Ez | Ez | 0 | 0 | |
| 7 | | | Zehaztugabea | | 2060 | Ez | Ez | Ez | Ez | 0 | 0 | |
| 8 | | | Zehaztugabea | | 2000 | Ez | Ez | Ez | Ez | 0 | 0 | |
| 9 | | | Zehaztugabe | 500 | 1500 | Ez | Ez | Ez | Ez | 0 | 0 | |
| 10 | | | Zehaztugabe | 1000 | 9000 | Ez | Ez | Ez | Ez | 0 | 0 | |
| 11 | | | Zehaztugabe | 671 | 4249 | Ez | Ez | Ez | Ez | 0 | 0 | |
| 12 | | | Zehaztugabe | 800 | 4000 | Ez | Ez | Ez | Ez | 0 | 0 | |
| 13 | | | Gaztelania | 1100 | 11000 | Ez | Ez | Ez | Ez | 0 | 0 | |
| 14 | | | Zehaztugabea | | 4200 | Ez | Ez | Ez | Ez | 0 | 0 | |
| 15 | | | Zehaztugabe | 400 | 3200 | Ez | Ez | Ez | Ez | 0 | 0 | |
| 16 | | | Zehaztugabe | 900 | 900 | Ez | Ez | Ez | Ez | 0 | 0 | |

Praktiken kudeatzaileek egutegia zehaztu, aldatu... dezakete, ikastegietan, eta beste pertsona batzuek kontsulta dezakete, aldatzeko aukerarik gabe (instruktoreek, tutoreek eta ikasleek).

18. irudia. Irakaslearen profilean:




19. irudia. Ikaslearen profilean:




20. irudia. Instruktorearen profilean:

